Praktika integratua - 2. maila - 2011/2012 ikasturteko 1. lauhilekoa

HIRIGINTZA

jakintza-arloari dagokion zatiaren azalpena

Proposatutako **"lekua"** garatu ondoren **"leku berria"** sortuko da. Lekua —parkea— hiriaren zati denez, adierazi beharko da, alde batetik, hiri osoak —**izate kolektibo** gisa— lekuari eskaintzen dizkion mugak eta aukerak, eta, bestetik, bai lekuak bai leku berriak hiriari eskaintzen dizkiotenak.

Parkearen partzela eta hiriaren arteko erlazioak hainbat **eskala** ditu: **eskala orokorra**, zeinetan parkea hiri osoarekin erlazionatzen den; eta **eskala xehea**, non parkea inguru gertuenarekin erlazionatzen den. Erlazio horien ondorioz, hainbat hausnarketagai edukiko ditugu: irisgarritasuna, adierazgarritasuna edo hiri-irudia, erabilerak, parkearen eraikigarritasuna…

Hiria denboran zehar aldatzen da. Proposamenak hiri-zati horren **lehena eta geroa** bereiztuko ditu, oreka berri bati bidea emanez.

Hurrengo 4 planoak garatuko ditu ikasleak:

- **Partzelaren azterketa proiektua egin baino LEHEN** *(2 plano)*

  - <u>Hiri osoaren eskala orokorra</u> *(H-1 planoa)*
    - Jatorria eta bilakaera (historia)
    - Dagoen hiri-egiturarekiko harremana
    - Adierazgarritasuna eta hiri-irudia

  - <u>Inguru gertuaren eskala xehea</u> *(H-2 planoa)*
    - Inguru gertuarekiko erlazioa
    - Partzelaren egitura (sarrerak, barne-irisgarritasuna, topografiaren interpretazioa, eraikinak, erabilerak, landaredia…)
    - Neurriak eta erabilerak (lurgaineko eta lurrazpiko eraikigarritasuna, lerrokadurak, profilak, dauden erabilerak…)

- **Partzelaren azterketa proiektua egin ONDOREN** *(2 plano)*

  - <u>Hiri osoaren eskala orokorra</u> *(H-3 planoa)*
    - Dagoen hiri-egiturarekiko harreman berria
    - Adierazgarritasun eta hiri-irudi berria

  - <u>Inguru gertuaren eskala xehea</u> *(H-4 planoa)*
    - Esku-hartzearen eremua, eragindako zoru eta elementuak, eta inguru gertuarekiko erlazio berria
    - Partzelaren egitura berria (sarrerak, barne-irisgarritasuna, topografia, eraikinak, erabilerak, landaredia…)
    - Proposamenaren neurriak eta erabilerak (lurgaineko eta lurrazpiko eraikigarritasuna, lerrokadurak, profilak, erabilerak…)
    - Obrak garatu bitarteko jarduera osagarriak